

## **HUTSIK DAUDEN MERKATARITZA-LOKALETAKO ESKAPARATEAK APAINTEZKO PROGRAMA**

### **PROIEKTUAREN HELBURUA**

Programak herrian hutsik dauden lokalak ikusarazi nahi ditu eta, horrela, lokal horiek berriro irekitzea sustatu. Xedea da saltzeko edo alokatzeko erakargarriagoak izan daitezela eta ingurua politagoa ikustea.

Programa gaur egun itxita dauden merkataritza-lokalen erakusleihoa dekorazio-biniloen bidez apaintzean datza. Binilo horiek lokalaren okupazioa sustatzearekin lotutako mezuak eta/edo irudiak izango dituzte.

### **BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

- Erakusleihoa duten Eibarko merkataritza lokalaren jabeak izatea.
- Merkataritza-lokala kalean bertan egon behar da, Eibarko kale hauetako batean:
  - Barrena
  - Barakaldo
  - Karmen
  - Arragueta
  - Urkizu parkeko alde biak

### **PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

- Lokalaren jabeak Eibarko Udalarari lokaleko sarrera bermatuko dio, behar beste aldiz, erakusleihoan biniloa jartzeko, haren mantentze-lanak egiteko edo hura kentzeko.
- Lokalaren jabeak erakusleihoak garbi edukitzeko konpromisoa hartzen du, baita biniloa urtean behin gutxienez jarrita izateko ere. Edozein kasutan, erakusleihoaren baimena eta mantentzea aldez aurretik ebatzi ahal izango du jabeak, lokala salduz gero, edo lokala merkataritza-jarduera bat jartzeko alokatuz gero.
- Eibarko Udalak lokalean sartzeko baimen-akordio bat sinatuko du hutsik dagoen lokalaren jabearekin, zeinaren bidez Udalak bere gain hartuko dituen erakusleihoaren binilatze-gastuak, programa honen markoan.
- Programan parte hartzeko jasotzen den eskaera kopuruaren arabera, Eibarko Udalak erabakiko du zer lokalek hartuko duten parte, balorazio-irizpide hauek kontuan hartuta: erakusleihoaren tamaina, lokalaren kokapena eta egoera. Era berean, aukeratutako lokalaren banaketa homoginoa baloratuko da, helburua izanik gunerik handiena hartzea, kale desberdinetan kokatuta dauden lokalaren parte-hartzea lehenetsiz, edo kale berean egonda ere, ondoko lokalak ez izatea.

### **ESKAERA EGITEKO EPEA**

2026ko uztailaren 6tik 24ra arte (biak barne).

### **TRAMITATZEKO BIDEAK**

**Pertsona fisikoak eta haien ordezkariak:**

- **Presentziala:** PEGORA, Herritarren Zerbitzuko Bulegoa (Untzaga plaza 1, beheko solairua).



- **Elektronikoa:** Udalaren [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) webgunearen bidez. Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.).

#### **Pertsona juridikoak eta haien ordezkari diren pertsonak:**

- **Elektronikoa:** Udalaren [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) webgunearen bidez. Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.).

#### **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazioa aurkeztu beharko.
- Lokalaren metroak eta erakusleihoaren neurriak zehazten dituen dokumentua, eta, gutxienez, erakusleihoaren argazki bat.

Prozedura hau behar bezala tramitatzeko, bai eskaera egiterako unean, bai hurrengo berrikuspenetan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erroldaren bidez, Eibarko Udalak honako informazio hau egiaztatuko du:

- Programa honetan parte hartzeko eskaera egin duen pertsona eskabidean adierazitako lokalaren jabea dela.